



2023KO OTSAILAREN 10EKO 065. ALKATETZAKO DEKRETUA

IKUSIRIK: Nafarroa Oinez 2023 antolatzearen helburua honako arlo hauetara bideratzea da:

.- Euskararen arnagune: Gaur egun euskararen erabilera moteltzen ari dela ikusita, gero eta estrategikoa da euskararen arnaguneetan dauden ikastolen lana, eta gero eta garrantzitsuagoa da Nafarroan euskalkia bizi-bizia duten herrien eredia.

.- Izaera Publikoa: Sekula baino gehiago, ikastolen izaera Publikoa aldarrikatzen da. Proiektu herrikoa da, kooperatiboa, autogestionatua, eta auzolanean oinarritua. Era berean, proiektu anitza eta inklusiboa da.

.- Hezkuntza-proiektu eraldatzailea: Ikastola belaunaldien arteko kateari eusten dion komunitate sendoa da. Ikastola gaur egungo ikasleen aitona-amonek sortu zuten, eta gaur egungo gurasoak ikasle ohiak dira. Kalitatezko hezkuntza-proiektu eraldatzailea izateko sortu zen, eta enbor beretik jarraitzen da.

GERTUA IZANIK: Jaiaren helburua, Nafarroa osoan euskara eta euskal kulturaren hedapena da.

AINZAT HARTUTA: Nafarroa Oinez Fundazioak Nafarroa osoan euskararen normalkuntza prozesurako urratsak egin ditu eta ahal duen neurrian, Euskal Herria mailan (azken honek gure udalerriri eragiten dio, Barrundia).

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENA.- Nafarroa Oinez Fundazioak aurrez aipatutako lan-ildoak gauza ditzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 300,00 eurotako dirulaguntza luzatzea (2023ko Aurrekontu Orokorretako 335.481.003 partida).

BIGARRENA.- Aurrenean aipatutako dirulaguntza berehala ordaintzea.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau Nafarroa Oinez Fundazioari jakinaraztea.

Alkate jaunak agin eta sinatu du, nire, idazkariaren aurrean, eta nik horren fede ematen dut.

ALKATEAK,

IDAZKARIAK,

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
IGOR MEDINA ISASA JON TXOPITEA ZUGADI	Alkatea	10/02/2023 16:06 10/02/2023 16:34